



SAN TOMAS LEKEITIO 2025EKO AZOKA
PARTE HARTZEKO ESKAERA ORRIA
(3. Eranskina)
HERRIKO TALDEAK



DATU OROKORRAK

<i>Elkartearen datuak</i>	
Izen fiskala:	NIF:
Elkartearen helburua:	
Helbidea:	Herria:
Harremanetarako pertsona:	
Telefono finkoa:	Telefono mugikorra:
Emaila:	
Kotxeko matrikula:	

AZOKA EGUNEAN AURRERA ERAMANGO DEN JARDUNA:

Deskribatu azoka egunean zer salduko den: pintxoak, edaria (alkoholduna-alkoholik gabea), taloa, ...

JARDUNETIK JASOTZEN DEN DIRUAREN HELBURUA:

Deskribatu azoka egunean aurrera eramango den jardunetik dirua jasotzen bada, zein ekintza edo helburutara bideratuko den:

ESKAERA ORRIARI ERANTSI BEHARREKO TXOSTENA:

Azoka egunean parte hartu ahal izateko, ondoren adierazten diren atalekin osatutako txostena erantsi

eskaera orri honi:

1. Helburuak. Zertarako parte hartu nahi den azokan, zer nolako lotura / harremana duten lehen sektorearekiko.
2. Zer saldu eta erakutsi nahi den azoka egunean (pintxoak zerenak, taloak, sagardoa, txakolina, sagar zukua, eskola proiektuak, materialak...).
3. Alergenoak nola kudeatuko diren.
4. Sukaldeetako funtzionamendua azaldu. Nortzuk izango diren arduradunak.
5. Hornitzaileak. Zeintzuk eta zer erosiko zaien. Fakturak gorde behar dira.
6. Zer nolako azpiegitura erabiliko den (behar den azalera zehaztu).
7. Kontaktua. Arduradun nagusiarena.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Behin onarpena jaso ostean, Udaleko erregistroan aurkeztu beharreko dokumentazioa, abenduaren 16a baino lehen:

- Aseguru poliza.
- Postuan egongo direnen elikagaien manipulazioaren agiriak. (Udalak antolatuko du ikastaro bat).
- Erantzukizunpeko adierazpena salduko diren produktuak eskualdekoak edo eta ingurukoak izatea lehenetsiko dela adieraziz.

JANARIA EDO ETA EDARIA SALDUKO DUTENEN KASUAN BETEBEHARREKOAK:

- Postuan ari direnek elikagaien manipulaziorako dagokion ikastaroa eginda izatea.
- 16 urte gutxienez beteta izatea, eta 18 urte alkohola salduko bada.
- Salduko diren produktuak eskualdekoak edo eta ingurukoak izatea lehenestea. Bertokoa kontsideratuko da lehentasunez Lea-Artibai eskualdean edo Bizkaian edo Euskal Herrian ekoiztutako produktuak izatea, produktuek horrela ahalbidetzen dutenean.

Eskaera orrian adierazitako datuak egiazkoak direla aitortzen dut eta azoka honi dagozkion oinarriak eta dagokion ebazpena onartzen ditudala.

_____, 2025eko _____ren _____an

Sinadura



SAN TOMAS LEKEITIO 2025EKO AZOKA
PARTE HARTZEKO ESKAERA ORRIA
(3. Eranskina)
HERRIKO TALDEAK



DATUEN BABESA ETA BAIMEN LEGALA

Datuen babesari buruzko legeak betez, jakin ezazu zure datuen eta/edo irudien tratamenduaren helburua estatistikoa dela, sustapen- edo merkataritza-komunikazioak edo -bidalketak mantendu ahal izatea, bai eta eskura ditugun hedapen-kanaletan (sare sozialak, argitalpenak, etab.) erabili ahal izatea ere. Datu eta irudi horiek konfidentzialtasun handienarekin tratatuko dira, eta jaso diren xedea bete ondoren ezabatu egingo dira.

Antolaketaren arduraduna den heinean, Lekeitioko Udaleko datuen babeserako informazioa:

Arduraduna: Lekeitioko Udala.

Helburua: Herritarren eskabideen arretari buruzko espedienteak kudeatzea.

Legitimazioa: Eskumenen garapena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Hartzaileak: Arloko eskumena duten beste administrazio publikoak

Eskubideak: Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea izango du, eta, horrez gain, datuon tratamendua mugatu edo haien aurka ere egin ahal izango du

Informazio gehigarria: Lekeitioko Udalaren webgunean

Antolaketa lanetan Lea Artibaiko Landagarapen Alkartearen lankidetzak dela eta erakunde honen datuen babeserako informazioa:

Datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, aurkakotza zuzentzeko eta/edo eramangarritasunerako eskubideak baliatu ahal izango dituzu, honako helbide honetara idatziz: Lea Artibaiko Landagarapen Alkartea, Xemein etorbidea 12A, PK 48270 Markina-Xemein, landagarapena@leartibaifundazioa.eus edo telefonoz 946169088 zenbakian.

IZEN ABIZENAK: _____ NAN: _____

☐ Baimena ematen diot Lea Artibaiko Landagarapen Alkarteari eta Leartibai Fundazioari, aipatutako elkartearen kudeaketa berari dagokion bitartean, nire datuak erabil ditzan.

Sinadura: